

Azpeitian, Arroa Goian eta Aiako Santio Erreka auzoan jai giroa izan zen nagusi atzo. Sagardoak, euskal giroak eta eguzki ederrak goxatu zituzten, beste urte batez, herritarren azalak eta barrenak.

Santiotan, sagardoaz blai

OLATZ PRAT

Santio jaiak sagardo usaina utzi dute eskualdeko hainbat txokotan. Azpeitia, Arroa Goian eta Aian festa giroa da nagusi asteburuan. Azpeitian egun handia izan zen atzo, goizetik eguzkiak gogotik jo zuen festaren erdigunean, herriko plazan eta eguzkipean, ekitaldi eta jarduerak asko izan zen. Inurrien moduan, pixkanaka-pixkanaka betetzen joan zen plaza.

Julio Aranburu oriotarrak Guinness marka berria egin zuen soka saltoan. 6.300 salto egin behar zituen 35 minututan marka berdintzeko; Aranburuk, ikusmin handia sortu zuen eta, azkenean, 6.507 salto egin zituen. Ikusleak ahoa bete hortz utzita, sekulako txalo zaparrada jaso zuen.

Urteroko lehiaketak jokatu ziren herriko plazan. XL Gazta Txapelketan epaimahaiak Araiako (Araba) Puy Arrietaren gaztari eman zizkion puntu gehien. Bigarren Pedro Gabiria legazpiarra gelditu zen eta hirugarren postuan, berriz, Ricardo Remizo Eulatekoa

(Nafarroa). Guztira, 21 parte-hartzaile izan zituen txapelketak.

Sagardo lehiaketa luzea

XXXVII. Sagardo Lehiaketa ohi baino gehiago luzatu zen atzo, izan ere, puntuazio ofizialean berdinketa izan zen lehen eta bigarren sailkatuen artean. Hiru aldiz errepikatu behar izan zuten bozketak eta azkenean, erabaki bitxia hartu zuten. Bi sagardoetako bat dastatzeko eman eta epaimahaiki de guztiek zortziko puntuazioa eman behar zioten; ondoren, bigarrena dastatu eta lehenarekin konparatuta, hobe ala okerragoa zen puntuazioa eman zuten. Gauzak horrela, azkenean, Barkaitzegi upategiak irabazi zuen txapelketa; Altzueta izan zen bigarren eta Alorrenea, berriz, hirugarren.

Goiz osoan zehar, gainera, plaza arkupeak upategi desberdinetako sagardo postuz beterik egon ziren. Herritarrek bi eurotan erositako edalontziarekin, nahi adina sagardo dastatu ahal izan zuten. Dastatu baino gehiago, edan, 13:30erako agortuta baitze-



Herriko harakinek txekorra erre ohi dute urtero santio bezpera gauean, egunean pintxoak eskaintzeko. O. PRAT

goen sagardo guztia. Urtero bezala, txekorra ere zuten herriko harakinek eta euro baten truke, haragi gozoaren mokadutxoak jan ahal izan zituzten agortu aurretik iritsi zirenek.

Pilotari gazteak sasoian

Frontoi-Txikin XXV. Pilota Txapelketa jokatu zen goizean, Cesar Valverde Saria. Benjamin txiki B mailan, Merketegik Amenabarri irabazi zion 18 eta 14; benjamin txiki A mailan, Galarraga gailendu zitzaion Albediri, 18 eta 17 emaitzarekin; benjaminetan Eguiguren eta Altuna bikoteak 18 eta 16 irabazi zituen Balerdik eta Garatek osatutako bikoteari; alebinetan, berriz, Albedik eta Iriondok 18 eta 13 irabazi zituen Peñagarikano-Alberdi bikoteari.

Azken partida, lau eta erdiko afizionatuen partida izan zen, eta La-

rranagak Mendizabali irabazi zion 22 eta 19ko emaitzarekin.

Arratsalde alaia

Indartsuak eta ederrak dira zezenak, hori frogatu zuten atzo arratsaldean Azpeitiko zezen-plazan zezenen *desenkajonamendura* joan zirenek. Saninazioetako zezenketetan toreatuko diren zezenak ikusi ahal izan ziren bertan.

Arratsaldean, berriz, Baigera elkartekoek kantu-poteoa egin zuten kaleetan zehar eta Gaztekean eman zioten amaiera; bertan bildu ziren guztiak, Hitzeder eta Eguirrolaren erromeriaz gozatzerak. Gauean Seiren musika taldeak kontzertua eskaini zuen plazan.

Arroa Goian giro ederra

Arroa Goian ere giro ederra izan zen atzo egun guztian zehar. Goizean patata tortilla eta sagardo

lehiaketa jokatu ziren eta jan edanarako aukera aparta sortu zen.

Kirolerako ere izan zuten tarteak arroarrek, goizean pilota partidak jokatu baitziren eta arratsaldean, parapente erakustaldia eta herri kirol saioa egin baitzituzten. Parapentean, ohi baino hegalarik gubxiago ibili zen aurtan, haizea zeharka baitzuten eta horrek hegaldia zailtzen baitzuen. Dena den, Endoia gainean, gizon-hegalariekin giro eguzkitsua gozatu ahal izan zuten bertaratutako zirenek.

Santio auzoan jai-giroa

Aiako Santio Erreka auzoan ere giro berezia izan zuten atzokoan. Goizeko 10:00etan meza izan zen auzoko elizan eta ondoren auzotar guztientzako hamaiketakoak prestatu zuten. Jarraian, herri-kirol jaialdi apartaz gozatu ahal izan zuten auzotarrak.



Cesar Valverde pilota saria jokatu zen goizean Azpeitiko Frontoi-Txikin. O. PRAT



Aranburuk Guinness marka berria. O. P.



Santion hamaiketako egin zuten auzotarrak meza irteeran. A. ORA LARRAÑAGA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



ZUMAIKO UDALA

IRAGARKIA

Zumaiako HA 03-Odileta-San Joseko EU 3.2ko Bepartzelazio proiektuaren hasierako onarpena 2009ko Uztailaren 21eko 418/2009 leku Alkatezta-Dekretu, ondorengo erabaki da:

- 1.-Zumaiako Planamenduko Arau Subsidiarioetako HA 03-Odileta-San Joseko EU 3.2ko Bepartzelazio proiektuaren hasierako onarpena ematea.
- 2.-Luzonari eta Hiritgintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 43 artikuluan; ekainaren 30eko 2/2006 Luzonari eta Hiritgintzari dagokion garapenerako prentzako neurrien 105/2008 Dekretuaren 10 artikuluan; Hiritgintza-Kudeaketaren Arauegiaren abuztuaren 25eko 3208/1978 Errege Dekretuaren 108 artikuluan aurrekusten denarekin bat etortze, espediente hau jendaurreko erakustaldian jarzea hogei laneguneko epean, iragarki Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita. Epe horretan interesatuek aipaturiko espedientea udalareko Hiritgintza sailaren aztertu eta hala balegokite, erreklatzioak auzokatu ahal izango dituzte.
- 3.-Dekretu hau argitaratu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udako iragarki taulan, gehien zabaldutako egunkarian eta barrikako jakinarazpenak egin.
- 4.-Erreklatzio edota eragozpenerik ezin, onarpena behin-betikotzat emana ulertuko da, gaitortzeko egintzen beharrik gabe.

Zumaiako, 2009ko Uztailaren 21a. ALKATEA

Iragarki laburrak

BESTERIK

■ **Naturista.** Naturista kontsulta: Bachén Loreak, tratamendu naturalak, oreka energetikoa... Telefonoa: 655 726291.

LANA

■ **Olikan** San Bartolome festetarako hiru tabernari behar dira. Hurrengo da telefonoa: 635745363.